

## V - BESTELAKOAK

## URAREN EUSKAL AGENTZIA

**Zadorra ibaiaren eskuineko ertzaren ekologia eta ingurumena leheneratzea, Iruña Oka udal-mugar-  
teko 3. poligonoko 600, 601 eta 602 partzeletatik igarotzen denean, Tresponde herrian**

Espediente-zenbakia: AO-A-2023-0068.

Eskatzailea: Arabako Foru Aldundia.

Erriberako berezko espezieekin landatuko dira Zadorra ibaiaren eskuineko ertzean dauden nekazaritza-erabilerako lurzatiak, ibaiertzeko baso autoktono bihurtzeko, horrela 91E0 batasunaren intereseko habitataren presentzia handitzeko: haltzadia-lizardia 1,80 Ha inguruko azaleran.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hiru egun balioduneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Boulevard eraikina, Gamarrako Atea kalea 1. A, 11. solairua - 01013 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 6a

*Lanen baimen arduraduna*

**MARÍA JOSÉ GUERRERO VERDEJO**